GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai irailaren 18an

Lee Krasner. Kolore bizia

Babeslea

Seguros Bilbao

Seguros Bilbao

Seguros Bilbaoko kideok ongietorria eman nahi dizugu *Lee Krasner. Kolore bizia* erakusketara, azken hilabete luzez arduratuta izan gaituen testuinguru honetan egoera bere onera etorriko den esperantzaren ildo beretik doan kolore- eta forma-eztanda sutsura. Arteak kemena eman izan die gizakiei, bereziki garai zailetan, eta uste dugu Lee Krasnerren artea, hain justu ere, etorkizunari aurre egiteko inspirazio-iturri izan daitekeela: sormen amaigabea eta etenik gabeko berrasmatzea dira artista estatubatuarraren lanaren ezaugarri nagusiak, eta ia bost hamarkadatan zehar garatutako lan horixe laburbiltzen du Museoaren erakusketa honek, artistaren piezarik adierazgarrienek osatutako sorta baten bidez.

Krasnerrek, gaur egun Ipar Amerikako espresionismo abstraktuaren figurarik behinenentzat jotzen den arren, ez zuen bide erraza izan. Emakume izateak eta bere ikasketa-garaian Estatu Batuetan nagusi zen Depresio Handiaren ondoriozko lazeria ekonomikoak traba handiak jarri zizkioten artista izateko zuen gogo biziari. Bere talentuari, borondate gogorrari eta etengabeko lanari esker lortu zuen, baina, pintura-arloan gailentzea. Orain Bilbon goza dezakegu Krasnerren ekoizpen paregabeaz, zeinak ageri-agerian uzten baitu artistaren asmo-adierazpena: “Mihise batek arnasa hartzea gustatzen zait, mihisea bizirik egotea. Bizirik egotean dago koxka”. Ezbairik gabe, erakusketa honek aukera paregabea ematen die ikusleei haren obren bizitasuna eta organikotasuna hautemateko.

Artea babestu behar dugula sinetsita —baita ere, eta bereziki, egoera sozio-ekonomikoa onena ez denean—, Seguros Bilbaorentzat atsegin handia da nazioarteko erakusketa paregabe honen bidaide izatea, Lee Krasnerri azken berrogeita hamar urteetan Europan eskainitako garrantzitsuena baita. Maila honetako erakustaldiei babesa emanez, Guggenheim Bilbao Museoak ereduzko kultur erakunde gisa nazioartean duen funtsezko papera sustatzen laguntzen jarraitzea da gure asmoa.

Javier Maiztegui
Seguros Bilbaoren Zuzendari Nagusia

Lee Krasner. Kolore bizia

- Datak: irailak 18, 2020–urtarrilak 10, 2021
- Komisarioak: Eleanor Nairne (Barbican Art Gallery) eta Lucía Agirre (Guggenheim Bilbao Museoa).
- Londresko Barbican Centre zentroak Guggenheim Bilbao Museoarekin batera antolatutako erakusketa.
- Babeslea: Seguros Bilbao

- Ibilbide osoan, etengabeko berrikuntza eta esplorazioa dituzte bereizgarri Lee Krasnerren lanek (autorretratu goiztiarrak eta naturaren marrazkiak, 1940ko hamarkadaren amaierako «Irudi txikiak», 1950eko hamarkadako collage urratzaileak, 1960ko hamarkadaren hasierako lan jori eta monumentalak...).

- Garaikide gehienek ez bezala, Lee Krasnerrek ez zuen «izenpe bereizgarria» garatu nahi izan, zurrunegia iruditzen baitzitzaion. Artistak ziklotan egin zuen lan, eta bene-benetako adierazpide berriak bilatu zituen.

- 1950eko hamarkadan zenbait lagun min eta senarra hil zitzaizkion, eta doluan tonu gorri-horiko lanak egin zituen. Gero, ordea, 1960ko hamarkadan, argiari eta koloreari tokia egin zien berriro.

Guggenheim Bilbao Museoak *Lee Krasner. Kolore bizia* atzera begirako erakusketa dakarkigu. Espresionismo abstraktuaren aitzindari den artista newyorktar horri buruzkoa da, eta pieza ugari biltzen ditu, aurretik Europan inoiz erakutsi gabeak. Seguros Bilbaok babestutako erakusketan berehala jabetuko da jendea etengabeko berrikuntza eta esplorazioa dituztela bereizgarri Lee Krasnerren (1908–1984) lanek berrogeita hamar urteko ibilbidean (autorretratu goiztiarrak eta naturaren marrazkiak, 1940ko hamarkadaren amaierako «Irudi txikiak», 1950eko hamarkadako collage urratzaileak, 1960ko hamarkadaren hasierako lan jori eta monumentalak...).

Brooklynen jaio zen Lee Krasner, etorkin-familia judu ortodoxo batean, eta, 14 urte zituela, artista izango zela erabaki zuen. Urteak eman ondoren artista gisa trebatzen, Lee Krasner espresionismo abstraktu hasiberriaren erreferentzia eta aktibo bihurtu zen. Alderdi anitzeko mugimendu bat zen, eta artearen erdigune bihurtu zuen New York gerraostean.

1942an, McMillen Inc. galerian egin zen pintura amerikar eta frantseseko erakusketan sartu zen Lee Krasnerren lana, lagun zituen Willem de Kooning eta Stuart Davis-en lanekin batera. Erakusketa hartan parte hartu zuten artistetatik bakarra ez zuen ezagutzen Krasnerrek: Jackson Pollock. Estudiora joan zitzaion bisitan, eta 1945ean ezkondu egin ziren.

Garaikide gehienek ez bezala, Krasnerrek ez zuen «izenpe bereizgarria» garatu nahi izan, zurrunegia iruditzen baitzitzaion. Artistak ziklotan egin zuen lan, eta bene-benetako adierazpide berriak bilatu zituen, baita unerik zailenetan ere (esaterako, 1956an Pollock bat-batean auto-istripu batean hil zenean).

ERAKUSKETAREN AURKEZPENA

Lenatik Leera

Artistaren berezko izena Lena Krasner zen, baina, 1922an, izen estatubatuarrago bat hartu zuen, «Lenore», eta, Cooper Union-eko Women's Art School-en ikasten hasi zenean, «Lee» bihurtu zen. Lehenengo aldi hartakoak dira erakusketaren hasieran dauden hiru autorretratuak. Haietako bat 1928ko udan margotu zuen, gurasoen etxean, Greenlawnen (Long Island). Horretarako, ispilu bat iltzatu zuen lorategiko zuhaitz batean, eta bere irudia margotu zuen, eta, hondoan, basoa.

19 urte zituela, graduatu ondoren eta denboraldi labur batez Art Students League-n egon eta gero, National Academy of Design ospetsuan sartu nahi izan zuen, *Autorretratua* (*Self Portrait,* ca. 1928) lanak natura marrazteko eskoletara joateko aukera emango ziolakoan. Hasiera batean akademiak ez zion sinetsi erretratua lorategian egina zenik; barruan egin zela pentsatu zuten, eta basoa gero gehitu zitzaiola. Krasnerrek protesta egin zuen, eta, azkenean, onartu egin zuten. Akademian, artistak haren ikuspegi tradizionalaren aurka borroka egin zuen, eta «denboran izoztutako giro erdipurdikoa eta erabat antzua [...]» kritikatu zuen.

Aurrez aurreko marrazkia

1930eko hamarkadako Depresio Handiaren ondorioz, Krasnerrek National Academy utzi behar izan zuen, eta irakasleentzako ikastaro batean izena eman behar izan zuen New Yorkeko City College-n, doako prestakuntza jasotzeko. Aldi berean, natura marrazteko eskoletara joaten hasi zen Greenwich House-n, Job Goodmanekin. Goodman Thomas Hart Benton margolari erregionalistaren dizipulua izan zen eta marrazketa-metodo klasiko bat defendatzen zuen, Michelangelo eta beste «maisu» errenazentista batzuengan inspiratutakoa. Erakusketa honetan dauden *Biluzi-estudioak* (*Studies from the Nude,* 1933) izeneko lau lanek Krasnerren biluziarekiko desinhibizioa erakusten dute, zeinak Conté barra erabiltzen baitu modeloaren gorputzeko muskulatura nabarmentzeko.

1937an, beka bat lortu zuen New Yorkeko W 9th kalean zegoen Hans Hofmann School-en ikasteko. Hofmann pintore moderno aleman bat zen; Parisen bizi izan zen eta han lan egin zuen, eta Picasso eta Matisse ezagutu zituen, zeinak «jainkoak» baitziren Krasnerrentzat. Hofmannek kubismo analitikoaren bertsio bat irakasten zuen, eta planoaren eta tridimentsionaltasunaren arteko tentsioak kezkatzen zuen; zeina harentzat obraren baitako «tirabira» baitzen. Hemen agertzen diren sei marrazkiek Krasner abstrakzioan murgildu zeneko uneak erakusten dituzte.

War Service-rako erakusleihoak

1929ko gainbehera ekonomikoaren ondoren, Franklin D. Roosevelt presidenteak zenbait programa jarri zituen martxan Ameriketako Estatu Batuetako ekonomia berreraikitzeko. 1935ean, Works Progress Administration (WPA) sortu zuen, herrialde osoan barrena obra publikoetako lanpostuak sortzeko milioika langabeentzat. Urte hartan bertan, WPAren babesean, Federal Art Project (FAP) sortu zen, zeinak artistei laguntzen baitzien eta espiritu amerikarra eta lanarekin, komunitatearekin eta optimismoarekin erlazionatutako balioak sustatzen dituzten proiektuak finantzatzen baitzituen.

1930eko hamarkadan, Krasnerrek proiektu horietako batzuetan parte hartu zuen, eta, 1942an, Manhattaneko eta Brooklyneko saltegi handietako hogei erakusleiho diseinatzeko eta muntatzeko lanak gainbegiratzea eskatu zioten. Jackson Pollock ezagutu berria zuen artistak, eta hura proiektu-taldean sartzea lortu zuen. Krasnerrek ikastaroei argazkiak ateratzea erabaki zuen, eta irudiak diseinuetan integratzea, haren interes artistikoak iradokitzen zituzten tipografia dinamikoez eta erreferentzia abstraktuez gain. Nahiz eta obra horiek jada ez diren existitzen, jatorrizko collageen diseinuei ateratako argazkiak hemen proiektatu ditugu, erakusleiho baten tamaina berean.

Irudi txikiak

1945eko udazkenean Krasner Springsera joan zenean, Peggy Guggenheimek Pollocki eskainitako laguntza ekonomikoari esker erositako baserrira, *impasse* artistiko batean zegoen: aurreko urtean aita hil zitzaion, eta ezin zuen ezer margotu, «harlauza grisak» deiturikoak izan ezik.

Laster, naturan murgiltzeari esker, beste ikonografia bat sortu zen, eta Krasner «Irudi txikiak» egiten hasi zen («Little images»): abstrakzio zirraragarriak, bitxien antzekoak. Haietako batzuetan, pintura-geruza lodiak aplikatu zituen espatularekin, eta, gero, brotxa gogorrarekin landu; beste batzuetan, aldiz, arabeskoen bilbe bat sortu zuen, trementinaz nahasitako pintura erabilita. Obra horien adibide ditugu *Kolore birrindua* (*Shattered Color,* 1947), *Abstraktua, 2. zk.* (*Abstract No. 2,* 1947) eta *Titulurik gabea* (*Untitled,* 1947).

Areto honetan, *Mosaikodun mahaia* (*Mosaic Table,* 1947) dugu. Hura egiteko, baserrian topatu zuen gurdi zahar baten gurpila hartu, eta elementuak gehitu zizkion; besteak beste, tesela baztertuak, imitaziozko bitxien zatiak, giltzak, txanponak eta beira zatiak.

Stable Gallery

«Irudi txikiak» amaitu ondoren, 1950ean Krasner bere banakako lehenengo erakusketa prestatzen hasi zen; Betty Parsons Gallery-n inauguratu zen 1951ko urrian. Erakusketa hartarako, 14 obra abstraktu geometriko sortu zituen, kolore leun eta argitsuz eginak; oso kritika onak izan zituzten, baina ezin izan ziren saldu. Artista etsita geratu zen, eta marrazki zuri-beltzak egiten hasi zen. Estudioko hormetan zintzilikatu zituen, zorutik sabairaino, beste bide bat hasteko ideia emango ziotelakoan. Behin, estudioan sartu, eta "ezin zituela jasan" erabaki zuen, eta apurtu egin zituen. Zenbait astez ez zen gai izan estudiora itzultzeko, eta, itzuli zenean, interesatzen zitzaizkion gauza pila bat zeudela konturatu zen, harrituta.

Paper hautsien hondakinak zenbait collageren abiapuntua izan ziren. Hondakin horiek Betty Parsons Gallery-ko erakusketarako mihiseetako hamabitan itsatsi zituen. Hainbat gauza gehitu zizkien; esaterako, zaku-oihalen zatiak, egunkari-orri hautsiak, argazki-papera, Pollockek baztertuta zeuzkan marrazkietako batzuk eta pintura-pintzelkada batzuk. Obra erraldoi horiek guztiak (hala nola *Argi birrindua* (*Shattered Light,* 1954), *Txorien mintzoa* (*Bird Talk,* 1955), *Arrano burusoila* (*Bald Eagle*, 1955) eta *Piko-belarra* (*Milkweed,* 1955) Stable Gallery-n eta Eleanor Warden galerian jarri ziren ikusgai 1955eko irailean.

Profezia

1956ko udan, Jackson Pollockekiko harremana une zailean zegoela, Krasnerrek *Profezia* (*Prophecy*) margotu zuen. Obra hori ez da ordura artekoak bezalakoa, eta hartan forma uhinduak eta haragitsuak dira nagusi, beltzez inguratuak eta arrosa-ukituz apainduak, gorputzaren ikonografia gogora ekarriz. Artistak berak zioenez, "koadroak ezinegon handia sortzen zidan", eta astoan geratu zen Frantziara bidaiatu zuenean. Abuztuaren 12an, dei bat jaso zuen: Pollock auto-istripu batean hil zen. Aste batzuk geroago, Krasnerrek berriro hartu zituen pintzelak, eta hiru obra sortu, *Profezia* obrarekin hasitako sailaren jarraipen gisa: *Jaiotza* (*Birth*), *Besarkada* (*Embrace*) eta *Hiru bitan* (*Three in Two*). Mihise horietako bi, *Jaiotza* eta *Hiru bitan*, erakusketan daude, eta indar psikologiko ilunek mugitutako paisaia biziak dirudite. Atsekabeak jota margotzen zergatik hasi zen galdetu zitzaionean, hau erantzun zuen Krasnerrek: «Margotzea ez da bizitzatik kanpo dagoen gauza. Gauza bera da. Bizitzeko gogorik dudan galdetzen badidate bezala da. Nire erantzuna bai da, eta horregatik margotzen dut».

Gaueko bidaiak

1957an, Krasner Pollockek estudiogisa erabiltzen zuen aletegian instalatu zen, Springseko baserrian; horri esker, ordura arte pentsaezinak ziren tamainetako obrak egin ahal izan zituen, mihiseak armazoirik gabe zuzenean horman zintzilikatuta. Garai hartan insomnio kronikoa izan zuenez, gauez egiten zuen lan, eta zuria eta kolore arre iluna soilik erabiltzea erabaki zuen, ez baitzitzaion gustatzen kolorea argi artifizialarekin aplikatzea. Tonu arre lurkara erabiltzeak kalitate organikoa ematen die obrei, eta pintura-geruza finek «jatorrizko bulkadaren keinuari» leialtasuna erakusten dute.

Haren lagun Richard Howard poetak «Gaueko bidaiak» deitu zien obra haiei, eta, Krasnerrek berak azaldu zuenez, lanetako batzuen izenburua (adibidez, *Eguzki-plexuari eraso* [*Assault on the Solar Plexus,* 1961]) «izugarri errealista"» zirela: «Greenberg-ekin liskarra izan nuen, nire ama lehentxeago hil zen... ez nekien Pollocken kontuari nola aurre egin. Garai zailak izan ziren». Hark aipatzen duen liskarraren arrazoia izan zen Clement Greenberg itzal handiko arte-kritikariak Krasnerri buruz antolatzen ari zen erakusketa bat bertan behera uztea erabaki zuela, ez zitzaiolako gustatzen Krasnerren pinturak hartu zuen norabidea. Saila baztertu ordez, margolaria buru-belarri jarri zen hartan lanean; Howard Wise Gallery-n aurkeztu zituen obrak 1960an eta 1962an, eta harrera ona izan zuten.

Oinarrizko saila

60ko hamarkadaren hasieran, Krasner berriro kolorea aplikatzen hasi zen margolanetan. «Gaueko bidaiak» bezala, *Beste ekaitz bat* (*Another Storm,* 1963) obrak paleta mugatua du, baina arre argiaren tokian

alizarina-karmin distiratsua erabiltzen du. Krasnerrek eskuineko besoa apurtu zuenean, ezkerra erabiltzen ikasi zuen, pintura zuzenean hoditik aplikatuta eta eskuin-eskuko hatzak mugimenduak bideratzeko erabilita. Horrela, obra ukigarriagoak sortu zituen; esaterako, *Urdinean barna* (*Through Blue,* 1963) eta *Ikaro* (*Icarus,* 1964). Hurrengo urteetan, Krasnerren keinuak solteagoak bihurtu ziren, kaligrafikoagoak, tonalitate disonanteko forma ausartekoak.

Krasnerrek kolore oparoak erabili zituen sail honetan, haren heroi artistikoak, Matissek, esandakoari lotuta: «kolorearekin, sorginkeriaren emaitza dirudien energia lortzen da». Garai horretan artistak konfiantza handia zuen bere buruarengan, beharbada Bryan Robertson komisarioak banakako erakusketa bat antolatu ziolako Londreseko Whitechapel Gallery-n 1965ean. Erakunde publiko batean egin zuen lehenengo erakusketa izan zen, eta oso kritika positiboak lortu zituen.

Oinarrizko saila marrazkiak

Krasnerrentzat, margolan bakoitzak barrutik sortu behar zuen; hori dela eta, inoiz ez zuen egiten zirriborrorik. Hala ere, 1968an, Douglass Howell bertako artisauak eskuz egindako paper lote bat bereganatu zuen, eta corpus artistiko bat sortzeko erabiltzea erabaki zuen, pigmentu puru bat edo bi erabiltzearen soiltasunarekin esperimentatuz: «Amorratzen nengoen hura egiteko, eta lanak aitaren batean saldu ziren». Erakusketan, obra haietako hamalau daude.

Palingenesia

1970eko hamarkadaren hasieran, Krasnerrek bilakaera izan zuen: azken obretako forma biomorfiko leunetatik elementu mugatuagoak dituzten konposizio abstraktuetara pasatu zen. Kolorista-ospea bereganatu zuen 1955ean Stable Gallery-n egin zuen erakusketari eta «Oinarrizko saila» berriagoari esker, baina, 1970eko hamarkadako haren obrak energia lasaiagoa zuen. Cindy Nemser arte-historialariak esan bezala, badirudi margolan berri horiek «hedakorrak ez ezik, neurritsuak... hadientsuak [eta] geldoak» direla.

Hasiera batean, Marlborough-Gerson Gallery-n jarri ziren ikusgai margolanak, baina, gero, *Lee Krasner: Large Paintings* (Lee Krasner: obra handiak) erakusketan aurkeztu ziren 1973an, Whitney Museum of American Art museoan, Marcia Tucker komisarioa zela; Krasnerren obra jaioterriko (New York) erakunde publiko batean erakusten zuen banakako lehenengo erakusketa handia izan zen. Margolanek agerian jartzen dute Krasnerren indar sortzailea, baita haren ibilbideko azken txanpan ere. *Palingenesia* (*Palingenesis,* 1971) obrari, gune honetako mihiserik handienari, «berpizkundea» esan nahi duen hitz grekotik abiatuta jarri zion titulua; funtsezko kontzeptua da hori Krasnerren jardunean. Artistak berak Barbara Rose komisarioarekin izandako elkarrizketa batean azaltzen duen bezala, «eboluzioak, hazkundeak eta aldaketak beren horretan jarraitzen dute. Aldaketa bizitza da».

Hamaika modu

1974an, Hans Hofmannen eskolan ikasten ari zenean egindako marrazkiz betetako karpeta zahar bat aurkitu zuen Krasnerrek, eta beste collage sail baterako erabiltzea erabaki zuen: guraizeak erabilita, angelu-formarekin moztu zituen, eta konposizio dinamikoetan antolatu mihise gainean, jatorrizko marrazkien

geometriaren ispilu gisa. Halaber, orrietako batzuen atzeko aldean agertzen diren irudi espektralak sartu zituen, eta mihiseko beste eremu batzuk landu gabe utzi, modelo biluziaren inguruko eremua hutsik utziz.

Pace Gallery-n jarri ziren ikusgai collageak, 1977an, «Eleven Ways to Use the Words to See» («Hamaika modu hitzak ikusteko erabiltzeko») izenburu kolektiboaren pean, eta obra bakoitzari aditz-forma bat jarri zion; esaterako, *Indikatibo burutugabea* (*Imperfect Indicative*, 1976), *Inperatiboa* (*Imperative*, 1976) eta *Indikatiboko geroaldia* (*Future Indicative*, 1977). Kritikak nabarmendu zuen sormen handiz erabili zuela aurreko obra, eta, Art in America-ren arabera, jatorrizko «[marrazkien] energia berritu egiten du birlanketa honen energiak, izan ere, alde batetik gurtu egiten ditu, beste hainbat garaikur bezala, eta bestetik, baztertu egiten ditu, erdipurdiko iraganaren parte direlakoan».

1984ko ekainaren 19an hil zen Lee Krasner, eta azkenean, bere bizitzaren amaieran, hain merezia zuen aitorpena eman zitzaion. Hala ere, onartzen zuen, zenbait alderditatik, jendeak ezikusiarena egin izatea "bedeinkapen" bat izan zela. Kritikaren presio handitik eta arte-merkatari eta bildumagile ugariren kontroletik aske, Krasnerrek bere bulkadei jarraikiz sortu zituen obrak, korronte berri bakoitzarekin nahierara lan eginez, eta inoiz obrak errepikatu beharrik gabe.

Erakusketa hau **Terra Foundation for American Art**-aren babesari esker gauzatu da

DIDAKTIKA: LEE KRASNER BAT BAINO GEHIAGO

BBK-k babestutako Didaktika proiektuaren barruan, eremu didaktikoak, online edukiak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu Museoak; erakusketen osagarri dira, eta bertako obrak ikusten eta ulertzen laguntzeko tresnak eta baliabideak eskaintzen dituzte.

Horrela, erakusketa honetarako diseinatutako eta areto berean kokatutako *In Focus* hezkuntza gunean, *Lee Krasner bat baino gehiago* eremuak artistaren nortasuna eta ekoizpena eraikitzen duten gako nagusiak biltzen ditu; esaterako, hasiera-hasieratik eta espresionismo abstraktu estatubatuarreko sortzaileen lehenengo belaunaldiaren testuinguruan finkatzea lortu zuen arte erakusten duen erabaki tematia.

Esperientzia osatzeko, berariaz erakusketarako ekoiztutako ikus-entzunezko bat dago, artistari egindako zenbait elkarrizketarekin.

Hezkuntza eta Aprende con bbk

Erakusketari lotutako jarduerak:

Lee Krasnerri buruzko solasaldia (irailak 29)
Lee Krasner. Kolore bizia erakusketaren komisarioak —Barbican Art Galleryko Eleanor Nairne eta Guggenheim Bilbao Museoko Lucía Agirre— artista amerikarraren erakusketari buruz arituko dira, baita haren bizitzari eta obrari buruz ere.

Hausnarketa partekatuak
Museoko Arte Ardurako eta Hezkuntzako profesionalek eskainitako bisitaldi esklusiboak; erakusketa berrietako edukiari buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte.

- Arte-arduraren ikuspegia (irailak 23): erakusketaren komisario Lucía Agirrek bertako obra garrantzitsuenak erakutsiko ditu
- Funtsezko kontzeptuak (irailak 30): Luz Magureguik, Hezkuntzako koordinatzaileak, obren alderdi orokorrei eta didaktikoei buruz hitz egingo du bertaratzen direnekin.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

Lee Krasnerri egindako elkarrizketak (urriak 22)
Lee Krasner, in her Own Words filmaren proiekzioa; artistari egindako oso elkarrizketa pertsonalak ikusi ahal izango ditugu, besteak beste, Chris Crosmanek, Nancy Millerrek eta Larry Riversek eginak. Londreseko Barbican Centre-k, Schirn Kunsthalle Frankfurt-ek, Zentrum Paul Klee-k (Berna) eta Guggenheim Bilbao Museoak berariaz erakusketarako ekoiztua.

Hitzaldia *LK: pintura bizitoki* (urriak 29)
Francisco Javier San Martín historialaria eta arte-kritikaria da, eta XX. mendeko Artearen Teoria eta Historia ematen du UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean. Hitzaldi honetan, Lee Krasnerrek pintura garaikidearen eztabaidari eskaini zizkion konponbideen ugaritasuna eta aberastasuna aztertuko du, Europako maisu handien eragina (bereziki Mondrian eta Matisserena) kontuan hartuta eta belaunaldi bereko artistekin alderatuta.

Sormen-saioa (18 edo gehiago) Krasnerrek erabilitako teknikak (azaroak 5)
18 urtetik gorakoentzako tailer honetan Veva Linaza artistak ariketa dibertigarri bat baliatuz Lee Krasnerrek bere garaian erabilitako tekniketako batzuk erabiltzea proposatuko die parte hartzaileei: mihisea asto gainean ipintzea, lurrean, mahai baten gainean, collagea sartzea koadroetan, ...

KATALOGOA

Erakusketarekin batera, Guggenheim Bilbao Museoak katalogo ilustratu bat argitaratu du, Eleanor Nairne editore lanetan izan duena. Katalogoa artistak jorratutako gaiak eta kronologia kontuan hartuta antolatu da eta ikuspegi bisual osatua eskaintzen du Lee Krasner-en ekoizpenari buruz eta haren lanak aztertzen dituzten artikuluak biltzen ditu, Nairne, Katy Siegel, John Yau eta Suzanne Hudson adituek idatzitakoak. Liburukiak orobat kronologia zabala eta Gail Levin-ek artistarekin izandako elkarrizketa adierazgarria barne hartzen ditu.

BIOGRAFIA

1908: Urriaren 27an, Brooklynen (New York) jaio zen Lena Krasner, haren familia judu ortodoxoa Odessatik gertu (orduko Errusia eta gaur egungo Ukraina) zegoen *shtetl* batetik etorri ondoren, pogromo basatietatik eta gerra errusiar-japoniarretik ihesi.

1926: 17 urte zituela graduatu zen, eta Cooper Union-eko Woman's Art School-en ikasten hasi zen. Denboraldi labur batez Art Students League-n egon ondoren, National Academy of Design-en ikasten jarraitu zuen.

1935: Works Progress Administration-eko (WPA) Fine Arts Project ataleko (FAP) Horma-irudien Dibisioan sartu zuten, artistei lana ematen laguntzeko.

1937: Hans Hofmann School of Fine Arts-en matrikulatu zen.

1940: Lehen aldiz, American Abstract Artists (AAA) elkartearekin jarri zuen ikusgai bere obra, New Yorkeko American Fine Art Galleries-eko *American Abstract Artists Fourth Annual Exhibition* erakusketan.

1941: McMillen Gallery-n egindako *American and French Paintings* erakusketaren harira, Krasnerrek Jackson Pollock ezagutu zuen.

1942: Krasnerrek iragarki handiak diseinatu zituen New Yorkeko saltoki handietako erakusleihoetarako, udal-fakultateetan ematen diren gerrarako prestakuntza-ikastaroen publizitatea egiteko.

1943: AAA elkartea utzi zuen, taldearen ikuspegi zurruna zela-eta; izan ere, ez zuen onartu Alexander Calder kide gisa, eta ez zuen nahi izan Hofmannek hitzaldi bat ematea.

1944: San Francisco Museum of Art-ek antolatutako *Abstract and Surrealist Art in America* erakusketan parte hartu zuen; erakusketa hartan, Sidney Janisek hautatutako obrak zeuden.

1945: Urrian, Krasner eta Pollock ezkondu egin ziren, eta, gero, Springsera (Long Island) joan ziren.

1946: Udaberrian, Krasnerrek aurrerapen handia egin zuen, *Irudi txikiak* (*Little Images*) izeneko obra-sail berri batekin.

1948: «Lee Krasner» izena erabiltzen hasi zen testuinguru publiko eta profesionaletan. *Irudi txikiak* saileko obra batzuk eta mosaikodun mahaietako bat jarri zituen ikusgai New Yorkeko Bertha Schaefer Gallery-ko *The Modern House Comes Alive 1948-49* erakusketan; arrakasta handia izan zuten kritikarien artean.

1951: Urrian, haren banakako lehenengo erakusketa inauguratu zen Betty Parsons Gallery-n: *Paintings 1951, Lee Krasner*. Artistak mihise horietako asko berrerabili zituen 1955ean Stable Gallery-ko banakako erakusketan aurkeztuko zituen collageak sortzeko.

1956: Udan, *Profezia* (*Prophecy*) izena izango zuen margolanean aritu zen lanean. Pollockekiko harremana ahulduta zegoen, haren alkoholismoaren ondorioz. Krasner Europara joan zen lehen aldiz, bakarrik; Parisen zegoela, Pollock auto-istripu batean hil zela jakin zuen.

1958: Otsailean, Krasnerren margolan berrienak New Yorkeko Martha Jackson Gallery-n jarri ziren ikusgai, banakako erakusketa batean. Uris Buildings-ek bi mosaiko-panel handi diseinatzeko eskatu zion, Manhattaneko hirigunean zeuzkan bulegoetarako.

1959: Krasnerren ama hil zen. Artistak obra-sail berri bati ekin zion; gauez margotzen zituen, argiztapen artifiziala erabilita, insomnio kronikoa baitzuen. Richard Howardek dolu-irudi gisa deskribatu zituen, eta haietako bakoitza gaueko bidaia batean sortu zela adierazi.

1965: Irailean, *Lee Krasner: Paintings, Drawings and Collages* atzerabegirakoa inauguratu zen Londreseko Whitechapel Gallery-n.

1968: Martxoan, Krasnerren obra berriaren lehenengo erakusketa egin zen Marlborough-Gerson Gallery-n: *Lee Krasner Recent Paintings*.

1972: Apirilean, Krasnerrek Women in the Arts taldearekin bat egin zuen, eta pikete batean parte hartu zuen New Yorkeko Museum of Modern Art museoan, erakunde horrek artistei ez ikusi nola egiten dien protesta egiteko.
1973: Azaroan, Whitney Museum of American Art-ek *Lee Krasner: Large Paintings* aurkeztu zuen, Krasnerrek New Yorkeko museo handi batean egiten zuen banakako lehenengo erakusketa.
1975: *Lee Krasner: Collage and Works on Paper, 1933-74* inauguratu zen urtarrilean, Washington D.C.ko Corcoran Gallery of Art-en. Pennsylvania State University Museum of Art-era eta Massachusettseko Brandeis Unibertsitateko Rose Art Museum-era eraman zen erakusketa.
1976: Krasnerrek Pace Gallery-rekin bat egin zuen, eta galeria horretan erakusketa egin zuen hirugarren emakumea bihurtu zen; hurrengo urtean, leku berean, *Hamaika modu hitzak ikusteko erabiltzeko* (*Eleven Ways to Use the Words To See)* aurkeztu zuen.
1978: Barbara Roseren *Lee Krasner: The Long View* dokumentala estreinatu zen.
1980: Krasnerrek Women's Caucus for Art-en Outstanding Achievement in the Visual Arts saria jaso zuen.
1981: Guild Hall-ek *Krasner/Pollock: A Working Relationship* erakusketa inauguratu zuen, Barbara Rose komisario zuela; New Yorkeko Unibertsitateko Grey Art Gallery-ra eta Study Center-era eraman zen.
1982: Krasner Chevalier de l'Ordre des Arts et des Lettres izendatu zuten Frantzian, bertako kultura-ministro Jack Langen eskutik.
1983: 75 urte bete zituenean, *Lee Krasner: A Retrospective* erakusketa inauguratu zen Houstongo Museum of Fine Arts museoan, Barbara Rose komisario zuela. San Francisco Museum of Modern Art-era, Chrysler Museum of Art-era (Norfolk, Virginia), Phoenix Art Museum-era (Arizona) eta Museum of Modern Art-era eraman zen erakusketa.
1984: Ekainaren 19an hil zen Krasner, New York Hospital ospitalean.

Azaleko irudia:
Sirena (*Siren*), 1966
Olio-pintura mihise gainean
128,6 x 206,1 cm
Hirshhorn Museum and Sculpture Garden, Washington D.C.
The Joseph H. Hirshhorn Bequest, 1981, 86.2768
© The Pollock-Krasner Foundation.
Argazkia: Cathy Carver, Hirshhorn Museum and Sculpture Garden

Informazio gehiago:
Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel.: +34 944359008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia ikusteko, joan hona: www.guggenheim-bilbao.eus **(prentsa-eremua).**

Prentsak erabiltzeko irudiak

Lee Krasner: Kolore bizia

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako online irudien zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-atalean (prensa.guggenheim-bilbao.es) erregistratuz gero, erakusketen eta eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatu ahal izango dituzu. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu eta deskargatu behar duzun materiala. Erabiltzailea bazara, idatzi erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta zuzenean eramango zaitugu irudietara.

- Irudiak *Lee Krasner. Kolore bizia* erakusketarekin erlazionatutako publizitatea egiteko soilik erabil daitezke. Erakusketa 2020ko irailaren 18tik 2021eko urtarrilaren 10era arte egongo da jendearentzat zabalik Guggenheim Bilbao Museoan.
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatu gabe, azalean izan ezik. Horretarako, artistaren estudioak maketa onartu beharko du. Erreprodukzioekin batera, artistaren izena, obraren izena eta data, jabetzaren erreferentzia, copyrighta eta argazkiaren kreditua adierazi behar dira.
- Online argitaratutako irudiak segurtasun-neurri elektroniko egokien bidez babestu behar dira.
- Irudiek gehienez 1.000 pixeleko bereizmena izango dute alderik luzeenean. Online argitalpeneko fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin da izan deskargagarria.
- Irudiak ezin zaizkie transferitu hirugarrenei edo datu-baseei.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko prentsa-sailarekin, telefonoz (+34 944 359 008) edo posta elektroniko bidez (media@guggenheim-bilbao.eus).

1. Lee Krasner
   Autorretratua (*Self-Portrait*), *c.* 1928
   Olio-pintura mihise gainean
   76,5 x 63,8 cm
   The Jewish Museum, New York. Erosketa: Esther Leah Ritz Bequest; B. Gerald Cantor, Lady Kathleen Epstein, eta Louis E. and Rosalyn M.Schecter Gifts, truke bidez; Fine Arts Acquisitions Committee Fund; eta Miriam Handler Fund, 2008–32
   © The Pollock-Krasner Foundation.
   Eskaintza, Jewish Museum-ek (New York)

2. Lee Krasner
   Kolore birrindua (*Shattered Color*), 1947
   Olio-pintura mihise gainean
   53,3 × 66 cm
   Guild Hall Museum, East Hampton, New York
   © The Pollock-Krasner Foundation.
   Christie's Images Limited-ek eskainia.

3. Lee Krasner
Mosaikodun mahaia (*Mosaic Table*), 1947
Mosaikoak eta baliabide anitzak zur gainean
Diametroa: 116,8 cm
Bilduma pribatua.
© The Pollock-Krasner Foundation
Michael Rosenfeld Gallery LLC-k (New York) eskainia

4. Lee Krasner
Konposizioa (*Composition*), 1949
Olio-pintura mihise gainean
96,7 x 70,6 cm
The Philadelphia Museum of Art. Dohaitza: Aaron E. Norman Fund. Inc. 1959-31-1
© The Pollock-Krasner Foundation

5. Lee Krasner
Arrano burusoila (*Bald Eagle*), 1955
Olio-pintura, paper eta mihise collagea liho gainean
195,6 x 130,8 cm
Bilduma: Audrey Irmasen, Los Angeles
© The Pollock-Krasner Foundation
Argazkia: Jonathan Urban

6. Lee Krasner
Profezia (*Prophecy*), 1956
Olio-pintura kotoizko olana gainean
147,6 × 86,4 cm
Bilduma pribatua
© The Pollock-Krasner Foundation
Kasmin Gallery-k (New York) eskainia
Argazkia: Christopher Stach

7. Lee Krasner
Ikaraldi polarra (Polar Stampede), 1960
Olio-pintura mihise gainean
243,8 x 412,4 cm
Doris and Donald Fisher Collection, San Francisco Museum of Modern Art
© The Pollock-Krasner Foundation.
Kasmin Gallery-k (New York) eskainia.

8. Lee Krasner
Beste ekaitz bat (*Another Storm*), 1963
Olio-pintura mihise gainean
238,8 x 447,7 cm
Bilduma pribatua. Eskaintza: Nevill Keating Pictures
© The Pollock-Krasner Foundation.
Kasmin Gallery-k (New York) eskainia.

9. Lee Krasner
Borroka (*Combat*), 1965
Olio-pintura mihise gainean
179 × 410,4 cm
National Gallery of Victoria, Melbourne, Felton Bequest, 1992 (IC1-1992).
© The Pollock-Krasner Foundation.

10. Lee Krasner
Sirena (*Siren*), 1966
Olio-pintura mihise gainean
128,6 x 206,1 cm
Hirshhorn Museum and Sculpture Garden, Washington D.C.
The Joseph H. Hirshhorn Bequest, 1981, 86.2768
© The Pollock-Krasner Foundation.
Argazkia: Cathy Carver (Hirshhorn Museum and Sculpture Garden).

11. Lee Krasner
Palingenesia (*Palingenesis*), 1971
Olio-pintura mihise gainean
208,3 × 340,4 cm
Pollock-Krasner Foundation, New York
© The Pollock-Krasner Foundation.
Kasmin Gallery-k (New York) eskainia.

12. Lee Krasner
Inperatiboa(*Imperative*), 1976
Olio-pintura, ikatz-ziria eta papera mihise gainean
127 x 127 cm
National Gallery of Art, Washington D.C.
Dohaintza: Eugene Victor Thaw eta emaztea National Gallery of Art-en 50. urteurrena dela-eta
© The Pollock-Krasner Foundation.
National Gallery of Art-ek (Washington D.C.) eskainia

13. *Lee Krasner*, c.1938
Argazkilari ezezaguna.

14. Irving Penn
Lee Krasner, Springs, New York, 1972
© The Irving Penn Foundation